

II. ASTEKLIMA SARIAK 2025

Klimaren eta trantsizio energetikoaren inguruan egindako ekintzarik onenak aitortzea

1. AURREKARIAK

Gure planetak egun pairatzen ari den klima aldaketa da espezie gisa aurre egin beharreko erronka nagusia. 2023an IPCCk argitaratutako seigarren ebaluazio txostenaren laburpenak nabarmentzen du klima aldaketak planeta osoari eragiten diola eta bizkortzen eta areagotzen ari dela. Inolako zalantzarik gabe, ezartzen du klima aldaketa hainbat giza jardueraren ondoriozko berotegi efektuko gasak (aurrerantzean, BEG) atmosferan metatzearen ondorio dela, batez ere erregai fosilak erretzetik (petrolio, iatza eta gas naturala) eta deforestaziotik datozen isuriak. Are gehiago, klima aldaketa krisi ekologiko handiago baten adierazpen premiazoago eta ikusgarriagoa da, eta biodibertsitateari edo nitrogenoaren eta fosforoaren zikloi ere eragiten die, Lur planetan giza bizitza garatzeko ezinbestekoak diren beste fenomeno biogeologiko batzuen artean. Premiazkoa da sektore guztietan eta eskala guztietan neurri anbiziotsuagoak hartzea, oraindik posible baita etorkizun jasangarri eta bizigarri bat bermatzea, 2030. urtera arte munduko emisioak gutxienez erdira murrizteko behar diren tresnak ditugulako.

Eraldaketa hori ezinezkoa izango da ekitaterik eta justizia sozialik gabe, eta ekintza klimatikoa eta politika makroekonomikoak uztartu behar dira, emisio gutxiko garapen jasangarria lortzeko, enplegua sortuko duena eta babes sozialeko eta finantzaketa eskuratzeko neurriak izango dituen. Eraldaketa sektore eta sistema guztietan azkarra eta irismen handikoa izan dadin, lege eta politika sendoak eta nazioarteko lankidetzak behar dira.

Horregatik, 2019ko uztailan, Euskadik mundu osoko erakunde politiko, sozial eta akademikoekin bat egin zuen klima larrialdiaren deklarazio formalarekin, karbonoan neutroak eta erresilienteagoak diren lurralde eta gizarte bat lortzeko politika publikoak bizkortzeko helburuarekin. Gainera, Eusko Legebiltzarrak eta Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek ere beharrezko ekimenak sustatzeko, bultzatzeko eta adosteko konpromisoa hartu dute, klima larrialdiaren aurrean anbizioz eta urgentziaz jarduteko.

Gainera, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen helburua da Euskadin 2050erako klima-neutraltasuna lortzeko esparru juridikoa ezartzea, Europako eta Estatuko legeriarekin bat etorritik.

Eskualdeek eta toki erakundeek klima aldaketaren inpaktua arintzeko neurrien %70 baino gehiago eta egokitzen neurrien %90 hartzen dituzte, eta EBko legedi osoaren %70 aplikatzen dute, hau da, gastu publikoaren heren bat eta inbertsio publikoaren bi heren. Horrez gain, herritarrak eta enpresak, sektore ekonomiko guztiekin batera, lehen sektorea barne, elkarlanean aritzera eta portaerak aldatzera deituta daude, ezarritako helburuak lortu ahal izateko. Beraz, klima neutraltasuna lehenbailehen lortzeko helburua eskualdeen eta toki erakundeek laguntzarekin eta lankidetzarekin lortu behar da, bestela ezinezkoa izango baita.

Eragile batzuk, hala nola tokiko erakunde publikoak, ikastetxeak, GKEak eta abar, herritarrengandik gertu daude, eta horrek berebiziko garrantzia ematen die herritarren parte hartzea bideratzeko garaian. Eredu diren heinean, klima aldaketari modu eraginkorragoan aurre egiteko beharrezkoa den ohitura aldaketa susta dezakete, ekintza klimatikoari begira sensibilizazio publikoa funtsezko alderdia baita, eta funtsezkoa baita herritarre aldaketetara egokitzearen eta gizarte egokituago eta erresilienteago baterantz ibiltzearen garrantzia uler dezaten.

Europar, Europako Batzordeko Energiaren Zuzendaritza Nagusiak eta Azpiegitura Klimatikoaren eta Ingurumenaren Europako Agentziak **Energia Jasangarriaren Europako Astea** antolatzen dute. Ekitaldia egiten den egunetan, Europako trantsizio energetikoko aurrerapenak hainbat kategoriatan saritzen dituzten **REANW Sariak** banatzen dira, eta **Gazteentzako Energiaren Europako Eguna** ere egiten da, energia garbiaren eta klima aldaketa arintzearen arloko profesional gazteei espazio bat emateko, beren ideiak partekatu ahal izateko.

Euskadin, horrelako ekimenekin bat eginda eta horietan inspiratuta, eta aipatu eragileak ekintzara mugiarazteko asmoz, **Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak**, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) eta Ihobe ingurumena kudeatzeko sozietate publikoaren bidez, publiko guztiei zuzendutako sensibilizazio jardueren garapena aitortu nahi du, herritarrei dei egiteko klima aldaketaren aurkako borrokan parte har dezaten.

2. PARTE HARTZAILEAK

Deialdia klima-aldaketari aurre egiteko ekimenak garatzen dituzten eragileei zuzenduta dago, hau da, **tokiko erakunde publikoei, ikastetxeei** (lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza) **eta lanbide-heziketako** zentro publiko zein pribatuei, **unibertsitatei** (publikoak eta pribatuak), **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko** eragileei, **governuz kanpoko erakundeei (GKE) eta ekintza klimatikoarekin konprometitutako Euskadiko beste eragile sozial edo ekonomiko publiko edo pribatu batzuei.**

Euskal Autonomia Erkidegoko **toki erakunde publikotzat** hauek hartzen dira:

- Toki erakundeak, hau da, udalerriez gain, udalarena baino lurralde eremu txikiagokoak, baita toki izaerako udalez gaindiko erakundeak ere, legez eratuta badaude eta dagozkien erregistro edo errolda administratiboetan inskribatuta badaude.
- Tokiko merkataritza sozietateak.
- Garapen Agentziak, batez ere bitartekaritza eta garapen ekonomikoa sustatzeko eta laguntzeko zereginetan aritzen direnak.
- Tokiko erakunde autonomoak.

3. KATEGORIAK

Toki erakundeentzat, bost kategoria hauek ezartzen dira:

- » 20.000 biztanletik gorako udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena
- » 5.000-20.000 biztanle arteko udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena
- » 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena

Gainerako eragileentzat hiru kategoria ezartzen dira, mota bakoitzeko bat:

- » Ikastetxeen eta lanbide heziketako zentroen ekimenik onena

- » Irabazi asmorik gabeko erakundeek ekimenik onena
- » Beste eragile sozial edo ekonomikoen ekimenik onena

Kategoria	Saria
20.000 biztanletik gorako udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	1
5.000-20.000 biztanle arteko udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	1
5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	1
Ikastetxeen eta lanbide heziketako zentroen ekimenik onena	1
Irabazi asmorik gabeko erakundeek ekimenik onena	1
Beste eragile sozial edo ekonomikoen ekimenik onena	1
Guztira	6

4. JARDUEREN TIPOLOGIA

Klima aldaketaren eta trantsizio energetikoaren arloan herritarrak sentsibilizatzeko eta erantzukidetasuna sustatzeko jarduerak aitortuko dira, baldin eta ASTEKLIMA 2024ko denbora esparruaren barruan egin badira (2025eko urriaren 17tik 26ra), klima aldaketaren aurkako borrokan herritarrak ekintzara deitzeko.

5. BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearen helburuekin **bat etortzea**. (20 puntu gehienez)
2. **Berrikuntza eta sormena**. Ekintza eta erabilitako metodologia berritzaileak diren baloratu nahi da, eta sormena baloratuko da. (20 puntu gehienez)
3. **Parte hartzea**. Beste sektore, erakunde eta herritar batzuekin lankidetzan aritzea baloratuko da, baita herritarrek ekintzan laguntzea eta parte hartzea ere. (30 puntu gehienez)
4. **Inpaktua**. Ekintzak euskal herritarren sentsibilizazioan duen inpaktua baloratuko da, baita horren emaitzek denboran iraun dezaketen ere. Parte hartzaileek jarduerari buruz egindako balorazioa kontuan hartuko da. (30 puntu gehienez)

EPAIMAHAIA

Sariak epaimahai batek garatuko duen prozesu batean esleituiko dira. Epaimahaia tokiko jasangarritasunean, kliman eta trantsizio energetikoan eta herritarren sentsibilizazioan adituak diren pertsona nabarmenek osatuko dute, eta lhobek eta EEEK izendatutako hiru kidek osatuko dute. Epaimahaia parekidea izango da.

Epaimahaiko kide bakoitzak sari nagusirako botoa eta kategoria bakoitzeko bi akzesit

posibleetarako botoak emateko aukera izango du. Epaimahaia zein adituk osatzen duten informazio publikoa izango da.

Epaimahaia EEeko eta lhobeko zuzendariek (edo eskuordetza duen pertsonak) presidituko dute, eta lhobek izendatutako beste pertsona batek ere parte hartuko du, hitzarekin baina botorik gabe, idazkari lanetan.

Epaimahaiak sariak osorik edo partzialki esleitu gabe utzi ahal izango ditu. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

DOKUMENTAZIOA ETA EPEAK

a) Hautagaitzak pertsona juridiko publiko edo pribatuak aurkeztu beharko dituzte, irabazi asmorik ez dutenak eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza dutenak, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 2025a baino lehen legez eratuta egotea.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoa lortzea eragozten duen debekuren bat edo zigor administratibo edo penalen bat duten erakundeek ezin izango dute saririk eskuratu, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoa barne.

Proposamenek hau bete beharko dute:

- Herritarrei zuzenduta egotea.
- Doakoak izatea.
- Proposamenaren gaia ekintza klimatikoari eta trantsizio energetikoari buruzkoa izatea.
- ASTEKLIMAREN denbora esparruaren barruan egitea (2025eko urriaren 17tik 26ra).
- ASTEKLIMAREN logotipoa sartzea (webgunean eskuragarri) ekintzaren zabalkundea egiteko materialean

Hautagaitza guzti-guztiak webgunean eskura daitekeen formularioaren bidez aurkeztuko dira: www.asteklima.eus.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.

Aurkezteko epea 2025eko urriaren 3n amaituko da, 14:00etan. Data eta ordu horren ondoren jasotako hautagaitzak ez dira onartuko.

Hautagaitza bakoitzak dokumentazio hau aurkeztu behar du:

- Hautagaitzaren formularioa (ekintza bakoitzeko formulario bat bete beharko da).
- Proposatutako ekintza bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena.

b) Aurrekoek gain, toki-erakundeek ere parte hartu ahal izango dute aintzatespen horietan, baldin eta garapen jasagarria sustatzen duten ekintzak gauzatzen badituzte eta 2025eko dirulaguntzen agindurako aurkezten badira. Eskaerak baloratu eta eskatutako gutxieneko kalitatea betetzen dutela egiaztatu ondoren, lhobe haiekin harremanetan jarriko da parte hartzeko aukera eskaintzeko.

Bi kasuetan, hautagaitza guztiak lhobek ebaluatuko ditu lehenik, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko. Zehaztutako irizpideak betetzen dituzten hautagaitzak www.asteklima.eus webgunean argitaratuko dira, urriaren 10a baino lehen.

Epeak:

Aurkeztutako ekimena egindakoan, gutxieneko baldintzak betetzen dituzten eta sariak jaso nahi dituzten hautagaitzek Jarduera Memoria aurkeztu beharko dute azaroaren 14a baino lehen eta memoriak elementu hauek jaso beharko ditu:

- Jarduera egiteko lekua eta data
- Erakunde antolatzailea
- Erakunde laguntzaileak
- Parte hartzaile kopurua
- Jardueraren tipologia:
 - A. Hitzaldiak, jardunaldiak.
 - B. Tailerrak, erakusketak
 - C. Ipuin-kontalariak
 - D. Zinema
 - E. Antzerkia
 - F. Bideo, argazki... lehiaketak
 - G. Bisitak, irteerak, ibilaldiak
 - H. Beste jarduera mota bat
- Jardueraren deskribapena
- Jarduerak ASTEKLIMari egindako ekarpena. Balorazio irizpideen justifikazioa:
 - A. Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearen helburuekin bat etortzea.
 - B. Berrikuntza
 - C. Parte hartzea
 - D. Inpaktua
- Dokumentazio gehigarria, argazkiak, etab.

Sari banaketa EEEK eta lhobek antolatutako ekitaldi batean egingo da, eta saritutako erakundeek jarduerak eta meritua bertan aurkeztuko dira jendaurrean. Sariak emateko ekitaldia epaia eman eta hurrengo asteetan egingo da. Sari-banaketa ekitaldiaren data asteklimaren webgunean argitaratuko da: www.asteklima.eus.

Saritutako erakundeek sarien banaketa ekitaldian parte hartu beharko dute.

Deialdi honetara aurkezteak bere oinarriak eta ebazpena onartzea –apelaezina izango da– eta edozein motatako erreklamazioari uko egitea dakar.

8. SARIEN EBAZPENA, PUBLIZITATEA ETA BANAKETA

Sariak diruzkoak izango dira, hau da:

KATEGORIA	SARIA
20.000 biztanletik gorako udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	Diploma
5.000-20.000 biztanle arteko udalerriko edo	Diploma

eskualdeko ekimenik onena	
5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriko edo eskualdeko ekimenik onena	Diploma
Ikastetxeen eta lanbide heziketako zentroen ekimenik onena	1.000€ (*) eta Diploma
Irabazi asmorik gabeko erakundeek ekimenik onena	1.000€ (*) eta Diploma
Beste eragile sozial edo ekonomikoen ekimenik onen	Diploma

Zenbateko ekonomikoa emateko, dokumentazio hau entregatu beharko da:

- Hautagaitza formularioa eta ekintzaren erantzukizunpeko adierazpena.
- Egindako jardueraren memoria, definitutako web formatuan atal guztiak beteta.
- Aukeran: material gehigarria; argazkiak, kartelak, bideoak...

9. ERREPRODUKZIO ESKUBIDEAK ETA JABETZA INTELEKTUALA

Salbuespen gisa eta behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, Ihobek oinarriak aldatzeko eskubidea gordetzen du, edukia argitzeko edo zehazteko soilik, eta horrek ezin du ekarri edukia funtsean edo arbitrarioki aldatzea. Oinarrien testua deialdi hau indarrean dagoen bitartean egongo da eskuragarri webgunean: www.asteklima.eus

Oinarriak onartzeak aurkeztutako ekintzak ASTEKLIMAREN webgunean argitaratzeko baimena ematea dakar, horiek zabaltzeko.

Aurkeztutako hautagaitzak EEEn eta lhuberen ohiko komunikazio kanal eta euskarrietatik eta beste hedabide informatibo batzuetatik argitaratu ahal izango dira modu mugagabean, betiere egilea aipatzen bada eta argitalpenaren helburua dibulgazioa bada.

*: Kopuru garbia